



## Rock doinuen asteburua, Andoainen

Eguerdian hasita zuzeneko musika izango da herrigunean. Emanaldi nagusia, aldiz, Nafarroa plazan, arratsaldeko 18:00tan hasita / 11

AIURRI

## Adarramendi abesbatza

Bi saio dituzte aurretik: ostegunean, Urrietako elizan; hilaren 17an, Kursaal aretoan / 7

**San Juan jaietan zapia soinean jantzita eramateko deialdia egin du Andoaingo Udalak / 9**

**Boccia egokitutako kirolean nabarmentzen ari den Markel Uzquiano gazteari elkarrizketa / 14-15**

### Kirol eta osasun ikastaroak 2026/2027

Izena emateko: ekainaren 19 arte, Kiroldegian

Informazio guztia:

## ADIERAZPENA

TOLOSALDEKO ALKATEEN MUGIMENDUA TOLOSALDEKO ALKATEAK, TARTEAN, ANDOAINGOA

## Ospitale berriaren plan funtzionalaren azterketaren ondorioak

Tolosaldeko alkateen mugimenduak orain dela aste batzuk jaso zuen Tolosako ospitale publikoarentzat Osakidetza osatutako Plan Funtzionala. Lehen hausnarketa Plan Funtzionalaren egiteko prozesua eta komunikatzeko eraren gainekoa da:

2025eko ekainaren 13an Alkateen mugimenduko ordezkari bat Osasun Sailburuarekin eta bere ordezkariarekin bildu ginenetik, alkateok ez dugu jaso ordezkatzeko ditugun instituzioek merezi duten tratua. Bitarte honetan informazio partzialak eta nahasiak besterik ez ditugu jaso eta desleialtasun instituzionalaren muga dauden jokabideak ere jasan ditugu. Prozesu osoan ez dugu Plan Funtzionalaren lanketan parte hartzeko aukerarik izan. Elkarlanean aritzeko, lanketa partekatua egiteko eta adostasun zabalak lortzeko aukera ederra baztertu du Osasun Sailak.

Plan funtzionalaren azterketari dagokionez berri, lehen irakurraldian nabarmen antzematen da ez dituela, tamalez, Tolosaldeko osasun beharrak asetzen, eta ez duela beste eskualdeek duten osasun arretaren parekorik bermatzen. Hauek dira adibide batzuk:

**Jarduera Kirurgikoa**

- Ospitaleratze gabeko kirurgia izango da. Orain arte kirurgia mota guztiak Asuncion klinikan egiten dira, bai ospitaleratze gabekoak, endoskopikoak... baina baita orokorrak eta larrialdietakoak ere. Batez ere digestio aparatukoak, trauma, oftalmologia... Ospitaleratzea eskatzen duten kirurgiak desagertzen dira.
- Dokumentuan adierazten da 4 kirofano egongo direla. Emandako datuak ez dirudi zuzenak direnik.



Tolosaldeko ESIA osatzen duten 31 herriko 30 alkatek, Andoaingo Andoni Alvarez Letek ere, agerraldia egin zuten aurreko astean Asuncion Klinikaren atarian.

Asuncionez urtean 1000 prozedura egiten dituela jasotzen da baina Asuncionez urtean 2000 prozedura egiten ditu. Aipatzen da, horietako kirofano bat oftalmologiarako espreski izango dela, kataratak egiteko. Beste bi berriz, endoskopiak egiteko izango direla. Gainerako guztiarentzat beraz kirofano bat geratzen da. Zer gertatzen da traumatologiarekin? Dena Donostiara?

- Esterilizazio zerbitzurik ez da egongo azpiegituran. Nola egingo da prozesu hau? Esterilizazioa kanporatzen saiatu diren ospitaleetan arazoak egon direla ikusi dugu.

**Ospitaleratzea**

- Tolosaldeko biztanleriaren patologia konplexua, Gipuzkoako gainerako eskualdeetan bezala Donostiako ospitalean egingo da. Halaber, larrialdi eta ospitaleratze pediatrikoak Donostiako Ospitalean egiten jarraituko da. Guk hori egokitzen jotzen dugu.
- Azpiegitura berria, gehienbat, gaixo kronikoentzat izango da, desoreka uneetan (une akutuek) ospitaleratzea

bermatzeko (60 ohe) eta beste gune bat (30 ohe) egonaldi ertain-luzeetarako.

- Ohe kopurua kalkulatzeko erabili diren datuak ez dira oso argiak, eta Asuncion eta Donostia ospitaleko kronikoen artan oinarritu dira. Matia eta beste egoitzak aipatzen dituen arren, kontabilizatzeko orduan kalkuluak ez dira oso argiak.
- Barne medikuntzako medikuek izango dute ospitaleratze arduraren eta mediku bakarra (barne medikuntza) egongo da guardian ospitalizaziorako eta kirurgia egin ostean etxera joan ez diren salbuespenetarako. Nahikoa al da?

**Larrialdiak**

- Aurreko puntuarekin lotuta, ez dago batere garbi zer gertatuko den larrialdiekin. Zer larrialdi mota artatuko dira Tolosan? Dena Donostiara bideratuko al da? Tolosan egun ambulatorioan dagoen Etengabeko Arreta Gune bat geldituko al da?
- Anbulantziaren basea ospitalean egongo da. Patologia akutuz guztiek ospitaleratze aukerarik edukiko ez dutenez, gaixoen trasladoek gora egingo dutela aurreikusten da.

**Laburbilduz**

- Egun ematen diren zerbitzu asko desagertzen dira, hala nola kirurgiak eta akutuen ospitalizazioak.
- Proposatzen dena ez da ospitale bat, Donostiako ESI-aren menpeko azpiegitura (horrela deskribatzen dute dokumentu osoan) bat da. Zentro soziosanitario bat dela esan daiteke. Eskualdeko ospitale izaera galtzen da.
- Tolosaldeko ESItan aipamenik ez zaio egiten. Tolosaldeko ESIA zertan

geldituko da? Zer nolako koordinazioa egongo da bi ESiren artean?

- Integrazioaren ikuspegitik Tolosaldeko ESIA apurtu egiten dela iruditzen zaigu.
- Tolosaldeko ESIak komunitatearekin dituen harremanak (udalekin, egoitzekin, osasun publikoarekin...) nola geratzen diren ez da azaltzen.
- Orokorrean Akutuen Ospitalea desagertu eta kronikoentzako ospitalea geratzen da (Asuncionez egun dituenak baino 30 ohe gutxiagorekin).
- Kirurgia orokorra eta traumatologikoa desagertzen dira, kirurgia txikieta mugatuz. UCSIA (Unidad de cirugía sin ingreso) bakarrik egongo da.
- Tolosako ambulategiarekin zer asmo dagoen ez da azaltzen. Zer gertatuko da eraikin horrekin?
- Tolosaldeak, irisgarritasuna eta zerbitzuak galtzen ditu eta Donostia saturatzen du.

**Hausnartzeko alderdiak**

- Proposamen honek sekulako eragina du Donostiako ospitalearentzat. Plan funtzional honek paraleloki ekarri beharko luke Donostiako ospitalearen eraldaketarako plana, hori gabe erabat erruna da. Une honetan Donostian dagoen egoera ez da erraza, birdimentsionamendu oso handia behar da hau posible egiteko. Non dago Donostiako plana? Tolosaldeko azpiegitura berrirako plan funtzionala eta Donostiako ospitalearen berrantolaketa behar dute halabeharrez. Bata bestea gabe ez du zentzurik.
- Zentro soziosanitario bat da proposatzen dena. Horretarako ez da ospitale

berri bat behar.

Horretarako, adinekoen egoitzetan ohe gehiago sar daitezke eta osasun taldeak indartu daitezke. Ospitaleratzeak ekiditeko zirkuituak antola daitezke. Planteamendu integral bat eskatzen du lehen arretatik hasita.

- Asuncion klinikako langileek ez dira besoak gurutzatuta geldituko bost urte barru klinika itxiko dela jakinda. Dagoeneko hasiak dira beste lan aukera batzuk aztertzen eta klinika uzten. Hemendik aurrera egoera hau areagotuko dela aurreikusten dugu. Aurrerantzean klinikak zerbitzua bermatzeko arazoak izan ditzakeela pentsatzen dugu.

**Ondorioak**

Jaurilaritzak mahai gainean jarritako Plan Funtzionala aintzat hartuta, ospitale berria bere horretan eraikitzea beharrezkoa ote den galdetzen diogu geure buruari. Ez al litzateke zentzuzkoagoa Asunción Klinika publikatzeko aukera seriozki aztertzea eta bideragarria balitz Osakidetza kudeaketa bere gain hartzea?

Aurkeztutako plana aurrera eramateko klinikak dituen espazioak nahikoak eta soberazkoak dira. Bestaldetik, langilegoaren aferari irtenbidea emateko bidea erraztuko luke eta zerbitzu publikoa bermatuta geldituko litzateke.

Tolosaldeko alkateok garbi dugu Gipuzkoako gainontzeko eskualdeen pareko arreta eta zerbitzuak izan behar dituela eskualdeak. Helburu horrekin aztertu dugu plana eta orain arte bezala elkarlanerako gure prestutasuna azaltzen dugu denok partekatzen dugun helburua lortzeko, Tolosaldeak kalitatezko osasun arreta publiko eta euskalduna jaso dezan.

## Zozketa berria martxan: EHZ jaialdira, Aiurriren eskutik

Ekainaren 26tik 28ra bitartean Arberatze-Zilhekoan ospatuko da Euskal Herria Zuzenean musika jaialdia



Silitia Andoaingo Rock Jaialdian eta EHZn ariko da zuzenean. SILITIA

### Erredakzioa ANDOAIN

Jaialdi aski ezaguna da eta AIURRIK jaialdirako bi sarrera bi-koitz zozkatuko du. Parte hartzeko epea ekainaren 18an bukatuko da, 11:00etan, eta irabazleak 12:00etan jakinaraziko dira.

### Parte hartzeko moduak:

"EHZ" izango da hitz gakoa:

- Whatsappa: 619 163 537.
- Emaila: diseinua@aiurri.eus.
- Telefonoa: 943 300 732.
- Aiurri.eus gunean, zozketen atalean klik ginez.

### Aurtengo egitaraua

Euskal Herriko eta nazioarteko talde ugari elkartuko da.

#### Ekainak 26, ostirala:

Acidulent, Ixabe, Jean-Paul Groove, Ketekalles, L'Entourloop, Niko Etxart eta Hapa Hapa, Siwanaba DJ, Tekmao, Xak eta Ztah.

#### Ekainak 27, larunbata:

Anestesia, Bele, Berdinki Zirkus, Bertso Musikatua, Bide Bakarra, Bilaka, Bonnie Spacey, Cordcore, DAM, Dena, Gaizka Chamizo & 2 Zaldi, Gilkitxaro, Yard, Jonkass, La Chorba de Raouf, La Patina, Libertivore, Matah, Merina Gris, Niña Coyote eta Chico Tornado, RTZ Kolektiboa eta Zpeiz Mukaki.

#### Ekainak 28, igandea:

Batcharte, Ekitaldia, Esacto'Lido, Imarhan, Kospeistar Orkestra, Les Cuisinieres, Maitane Sarralde, Marabiyak, Moonlight Benjamin, Martzelina, Olaya Sound System, Pambele, Silitia, Skabidea, Snapped Ankles, Terrestesa, Txingili'k, Zigante eta Gaiterak eta EHLGk prestatu-riko zikiroa.



AIURRI

## Aupa Iñaki!

Buruz buruko finala amaitzearekin bat, porraren saria banatzeari ekin zion Aiurrik. Emaitza zehatza ez zuen inork asmatu eta, hala, Klaudio Rezola izan da gehien gerturatu zena. Aste honetan jaso du sarietakoa, Kuttunek egindako tarta hain zuzen. Andoaingo Agustin Leitza kaleko gozotegiak tarta ederra prestatu zuen, bai horixe! 184 pertsonak parte hartu zuten Aiurrik antolatutako porran. Izango da porra gehiago, etorkizunean.



AIURRI

lagunkoia

plaza

**Gero eta adintsuagoa den gizartearen inguruko doako jarduerak adin guztietako pertsonentzat**

**Espero zaitugu!**

**EKAINAK 16-17** | **KURSAAL**  
aurrian

www.lagunkoia plaza

## DEIALDIA

MARCE GARCIA GESPREST BANKUEN ERREKLAMAZIOAK

## Lagun ezazu Andoain "banku-gehiegikerietatik libre" herrialdeko lehen udalerrri deklaratzeko

Gesprest Bankuen Erreklamazioak, Aiurri astekariaren zabalkundearen bitartez, Andoain "Banku Gehiegikeriarik gabeko Udalerrri" izendatzeko kanpaina bat jarri du abian, estatu mailan aitzindari dena. Andoaindar guztiei honakoa eskaintzen die ekimenak: 1995 eta 2019 artean sinatutako hipoteka, handitze edo berritze guztiak, doan berrikusteko aukera (berdin dio balioabetuta dauden ala ez), eta bankuek bidegabe kobratutako diru guztia, abusuzko klausulen bidez (gastuak, zoruak, irekiera-komisioak eta abusuzko beste komisio batzuk, biribiltzea, berandutze-interesak...) eta banku-abusu mota guztien bidez (iruzurrezko karguak txarteletan, revolving txarteletan...) berreskuratzeko aukera.

Banku askok urteak eman dituzte erreklamazioak atzera botatzen preskripzioa argudiatuz, baina Auzitegi Gorenak ebatzi du hori ez dela egia. Bi kasutan bakarrik preskribatu dira:

1. Klausula horren deuseztapena deklaratzeko duen epai irmo batetik bost urte igarotzea itzulketa erreklamatu gabe (kasu oso gertagaitza).

Bankuak frogatu ahal izatea bezeroak duela bost urte baino gehiago bazuela abusuaren berri, eta kasuen % 99an frogatu ahal duen gauza bakarra da bezeroak klausula horregatik erreklamazio bat aurkeztu zuela duela bost urte baino gehiago.

Beraz, bi kasu horietan bakarrik preskribatu da, baina baztertutako ehunka mila erreklamazio preskribatzeko arrisku larria dute, eta beraz, beharrezkoa da preskripzio hori



Andoaingo herrigunea. AIURRI

geldiaraztea berriro erreklamatu.

Gainera, laguntza profesionalik gabe Kutxabank bezalako erakundeei zuzenean erreklamatu badiezu eta 1.000 euro baino gutxiago itzuli badizkizute, zure ezjakintasunaz baliatu dira berriro, eta seguru ez dizkizutela legezko interesak itzuli (300-800 euro gehiago).

Ez dago aitzakiarik. Ez duzu ezer galtzen. Bankuak kendu dizuna ez baduzu berreskuratzen, nahi ez duzulako da, eta kanpaina honetan ezin dizugu errazago jarri:

- Zure hipoteka doan berrikusten dugu eta abusuzko klausulen berri ematen dizugu.
- Dirua berreskuratzen baduzu bakarrik kobratzen dugu. Ez baduzu ezer berreskuratzen, ez dizugu ezer kobratuko.

Oso garrantzitsua: Bankuak epaiketara joanarazten bagaitu (Abanca, Santander edo BBVA bezala), jendea

beldur izan ez dadin, kanpaina honek 100 erreklamazio baino gehiago jasotzen baditu, gure gain hartzen ditugu bezeroaren erroreari leporatu ezin dakiokkeen epaiketa-galeraren kostuak. Aurtengo udan, bankuak eta akziodunak bidegabe kendu zizutenaren kontura joango dira oporretara. Zure dirua berreskuratzea mesede egingo dizu eta gainera, bankuak ez du inolako onurarik lortuko jendeari egindako gehiegikeriagatik. Egin kontu, eta jende askok borrokatu eta arriskatu duela gehiegikeri horiek berriro gerta ez daitezen eta zuk zure dirua berreskura dezazun. Eskatu hitzordua zure mailegua berrikusteko edo zalantzak argitzeko WhatsApp bidez 695 787 493 edo info@gesprest.com helbidera e-posta bidaliz "Andoain banku-abusurik gabe" adieraziz, eta lagun eta senideen artean hori zabaltzen lagundu.



Imanol Goenaga Egibar. EAJ-PNV

## Hamabi urteko zikloa beteta, agurra iragarri du Goenagak

EAJ-PNVko Andoaingo buruzagiak Udal ordezkari izateari utziko dio 2027an

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Aurreko astean egin zuen iragarpena: agintaldiaren amaieran –2027ko maiatza–, udal ordezkari izateari utziko dio Imanol Goenaga Egibarrek. Azken hiru agintalditan zinegotzi izan da eta, beraz, 12 urteko ibilbidea osatuko du udal politikagintzan. 2015-2019an hartu zuen akta, lehen aldiz. Azken unean Ana Carrerek alkatetzari eutsi ziona izan zen hura. Lau urte berandago, 2019-2023 zikloan, gobernu ardurak hartu zituen. Esperientzia politiko handia hartu du urteotan guztiotan. Egun,

EAJ-PNVko bozeramailea da udaletxean eta Gipuzkoa Buru Batzarreko kidea... itzal handiko kidea da, beraz, Gipuzkoako EAJ-PNVn.

Andoaingo EAJ-PNVn, beraz, lidertza berritzeko prozesuari ekingo diote: "Badago harrobia, badira indar berriak eta badira EAJ-PNVren hurrengo etapa Andoainean gidatzeko gaitasuna duten pertsonak".

Bitartean, Goenagak berretsi du agintaldia amaitu arte "udalerantzukizunak grina, konpromiso eta dedikazio berarekin" beteko dituela.



AIURRI

## Elikagai-bilketa

Elikagaien bankuak udaberriko bilketa egin zuen aurreko astean, tartean, Andoaingo hainbat merkatalguneetan. Ikasturtea amaitzean dela, egoera zaugarrian dauden familia eta haur askoren janaria bermatu nahi da eta, horretarako, hustutzen ari diren biltegiak bete nahi dituzte berriro. Elkartasun ekimen handia da, boluntario askoren laguntzari esker egiten dena.

# Kultur Astearen azken txanpan mugildu dira

XLVII. Kultur Astea ospatzen ari dira Hogar Extremeño elkarteko kideak. Aurreko larunbatean ekin zioten bazkideek, udal ordezkariak eta herri elkarteetako hainbat kidek. Ohi bezala Extremadurako ereserkia abestu zuten



Zuzendaritza-taldeko kideak, Hogar Extremeño elkartearen sukaldean. AIURRI

## Erredakzioa ANDOAIN

Herriko ordezkariak eta gizarte-eragileak gonbidatu zituzten Kultur Astearen irekiera-ekitaldira, aurreko larunbatean. Biharamunean, bazkaria egin zuten Hogar Extremeño elkartearen bertan.

## Ekainak 12, ostirala

Bastero Kulturgunean sortterriko folklorea biziberrituko dute. 19:00 Dantza taldeen eta abesbatzen jaialdia. Extremadura, Andaluzia eta Euskal Herriko kulturen ordezkari gisa: Intxaurrendoko Extremadurako Zentroa, Lasarte-Oriako Erketz

Dantza Taldea, eta, Andoaingo Aire Berriak.

## Ekainak 13, larunbata

Elkartearen egoitzan amaiera emango diote Kultur Asteari. 10:00 Miga lehiaketa. 11:00 Toka lehiaketa. 12:00 Ekintza desberdinen sari banaketa eta Kultur Astearen amaiera.

Aurten, Hogar Extremeño elkartearen zuzendaritza-taldea honako kide hauek osatzen dute: Jose Lujis Verdasco (presidentea), Armando Fernandez, Joxe Mari Galan, Juanan Lopez, Rikardo Seara, Alvaro Gabilondo, Manuel Canales eta Maria Gomez.



Hamaiketako bikaina egin zuten Kultur Astearen irekiera-ekitaldian. AIURRI



## Andoain BAT

### Agenda bateratua:

### Udaleko eta herriko ekintzen topagunea.

Andoaingo Udalak "ANDOAIN BAT" kaleratuko du, herrian antolatzen diren jarduerak bilduko dituen agenda bateratua. Proiektuak hiru dimentsio izango ditu: aplikazioa, webgunea eta eskuorria.

- **Mugikorrerako app-a**  
Ekitaldi guztien agenda eta gehiago. Eskaneatu QR kodea aplikazioa deskargatzeko.
- **Webgunea**  
Kontsultatu guztia [andoainbat.eus](http://andoainbat.eus) webgunean, beti eguneratuta.
- **Eskuorria**  
Hilabeteko programa paperean. Herriko gune hauetan eskuragarri egongo da: Ataria, Ambrosia Olabide, Urigain, Arrate, Bastero Kulturgunea, Liburutegia, Gazte Lokala, Ludoteka eta Allurralde.



Android



iOS





**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA



Ostolaza, kirol zinegotzia. UDALA

## Ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago

### Erredakzioa URNIETA

2026-2027 ikasturterako eskaintza prest du Urnietako Udalak. Aukera zabala da: Spinning, Bodyzumba, Total Training, Tonifikazioa, Pilates, Bodypump, Hipopresiboak, Stretching... Izena emateko epea ekainaren 19 arte egongo da zabalik, eta agiriak kiroldegiko harreraren bete behar dira. Zalantzak argitzeko telefono zenbakia eta helbide elektronikoa urnietarren esku utzi du Udalak: Telefono zenbakia: 943 008 328; Helbide elektronikoa: kirol@urnieta.eus.

### Merkeago, hainbat kasutan

Urnietan erroldatutako pertsonen, hainbat kasuan, % 20ko hobaria izango dute. Honako kasu hauetan: familia ugaria edo guraso bakarrekoak, 21 urte azpikoak, 65 urtetik gorakoak, langabeak, pentsiodunak, ikasleak eta Txartel Gaztea dutenak.



Bertan. UDALA

## Zerbitzu publikoen udako ordutegia

### Erredakzioa URNIETA

Udan hainbat zerbitzutan ordutegi-aldaketa izaten da. Nabarmentzenak, jarraian.

**Bertan** Urnietako arreta zerbitzua asteleheneretik ostegunera zabalik izango da goizeko 7:30etik 14:30ak bitarte. Ostiralero, berriz, 7:30etik 13:30era.

Uda, hainbat ikaslerentzat, ikasteko eta trebatzeko garaia da. **Liburutegia** ekainaren 22tik irailaren 4ra bitarte zabalik izango da, asteleheneretik ostiralera, 9:00-14:00 ordutegian. Abuztuaren 3tik 21era berriz, atekak itxiko ditu. Ikasleek badute beste aukera bat, ikasketa gela izenekoa. Uztailean eta abuztuan, asteleheneretik ostiralera, 9:00-14:00 artean zabalik izango da. Asteburuetan, aldir, 9:30etik aurrera. **Ikasgela** irekitzeko eta ixteko Udaltzaingoari deitu behar zaio, 943 00 80 90 telefono zenbakira deituta.



AIURRI

## Lourdes Iriondo Musika Eskolako ikasleak

Donostiako Ekintza Abesbatza eta Zarauzko Imanol Urbietako Udala Musika Eskola kantuan izan ziren Urnietan, aurreko asteburuan. Azken hiru abestietan, Lurdes Iriondo Musika Eskolako ikasleak ere haiekin

aritu ziren, gonbidatu gisa. Kantuak honako hauek izan ziren: "Urrundik", "Bonse aba" eta "Mamma mia". Bea Garcia eta Erlantz Carrion irakasleek Urnietako kantari gazteekin prestatu zuten saio hori.

## Gidabaimena euskaraz

Gidabaimena Euskaraz programa garatu dute Beterri-Buruntzako udalek. Hala, euskaraz gidabaimena eskuratu duten ikasleen artean zozketa egin da. Urnietan Hegoi Lizaso Lopez gazteak eskuratu du 400 euroko saria. Zozketa joan zen maiatzaren 28an egin zen Andoainen, Udal ordezkarien presentziarekin.



Lizaso eta Artola. UDALA

## Udal igerilekua

Ekainaren 13tik irailaren 13ra bitarte udal igerileku irekia zabalik izango da. Honako ordutegian, zehazki: goizeko 10:00tan hasi eta iluntzeko 20:30ak bitarte. Kiroldegia ordutegia, berriz, 08:30-22:00 artekoa izango da asteleheneretik ostiralera. Larunbatero eta igandero, berriz, goizeko 9:00etatik gaueko 21:00ak arte.



www.aiurri.eus

### Aiurri eskuragarri:

Ebezez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

### Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

### Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.

### Erredaktoreak:

Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.

### Maketatzailea:

Maddi Trubuelo.

### Kudeaketa, harpidetzak:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

### Publizitatea:

Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

### Banatzailak:

Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietan).

### Diseinua:

Golena / TOKIKOM.

### Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

### Lege Gordailua:

SS-1078/04.

### ISSN:

1698-4870.

### Tirada:

4.000 ale.

### Inprimategia:

Zeroa Multimedia.

### EKOIZLEA:



### ALJATUAK:



### BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINO UDALA



URNIETAKO UDALA

### DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



# Zuzenekoei ekingo dio Adarramendi abesbatzak

Urnietako Adarramendi abesbatzak emanaldi-sorta du datozen egunotan: ostegunean Urnietako elizan ariko da, iluntzeko 20:00tan hasita. Eta, hilaren 17an, Donostiako Kursaalaren abestuko dute berriro

## Erredakzioa URNIETA

Hasiberrien ilusioarekin izango dira kide asko, egun hauetako entseguetan. Izan ere, Adarramendi abesbatza berriak urratsa emango du datozen egunotan: oholtzara igoko da jendaurrean kantatzeko xedez. Lehen emanaldia ostegunean izango da, Urnietako elizan, iluntzeko 20:00tan hasita. Emakumezkoen Easo abesbatza eta Sinfonietta taldeak ere iragarrita daude emanaldi berean. Egundutxira iritsiko da bigarren emanaldia, Donostiako Kursaal aretoan. Hiriburuan egingo duten horretan abesbatza gehiagorekin batera ariko dira kantuan.

## 2026an martxan jarri da abesbatza

Urnietako abesbatzak lehen urratsak eman ditu hilabeteotan. 2026ko urtarrilean egin zuten deialdia, bertako kide izateko gonbitea luzatuz. Geroztik lagun ugari bat egin du abesbatzarekin eta talde polita osatu dute. Lehen pausu horiek ematerakoan, ezinbestekoa izan da Easo Abesbatzaren laguntza. Kantu koralean erreferentzietakoa da Euskal Herrian, eta haien begiradapean abiatu da Urnietakoa.

Adarramendi Abesbatzako partaideak Josu Elberdin Badiola (Pasaia, 1976) konpositore eta zuzendariaren gidaritzapean

ari dira lanean. Eskarmentu handiko zuzendaria du Adarramendik: Elberdinek Musika ikasketak Pasaia Musikal Erdi Mailako Kontserbatorioan egin zituen eta bertan Piano eta Kantu irakasle titulua lortu zuen. 2000tik Pasaia Udal Musika Eskolako irakaslea da eta 1991tik Trintxerpeko Karmengo Andre Mariaren parrokiako organista da. Han eta hemen haur eta helduen abesbatza-zuzendaritzako mintegiak eta ikastaroak ematen ditu.

Urnietarrek, beraz, herriko abesbatza zuzenean ikusteko aukera dute. Ostegun honetan, herriko elizan, 20:00tan hasita.



Adarramendi abesbatza, entseguan. Behean, Josu Elberdin. ADARRAMENDI



AIURRI

## Egunean Behin, Tokikom Liga

Aurrera doa Egunean Behin lehiaketa ezagunaren denboraldia, berrikuntza nabarmenarekin: Tokikom Liga sortu da eta bertan lehiatzen ari dira Aiurri (Beterri-Buruntza) taldeko partaideak. Laugarren astea eta gero zozketa egin da eta irabazlea "Sasu" urnietarra izan da. Dagoeneko jaso du Adunako Zabalako sagardo-botila sorta, Aiurrikoen eskutik. Aurreko hiru saridunak "Nago" urnietarra, "Mariaje" lasartearra eta "Mikelog" lasartearra izan dira.

## KOMUNITATEA

### EGAPE DANTZA TALDEA URNIETA

## "ETD irratia" ikuskizuna

Dantza emanaldia izango da Saroben, igandean. 18:45etan helduen taldeko 13 dantzarik ikasturte amaierako ikuskizuna eskainiko dute.

19:30etan, bestalde, iritsiko da gazteen emanaldia. Egage Dantza Taldeko 44 gazte dantzari agertokira igoko dira ikasturte amaierako ikuskizun berriarekin, talentua eta esfortzua agerian uzten duen proposamen artistikoarekin. Emanaldiak euskal musika eta dantza uztartuko ditu, kantuzerrenda baten bidez hogeikoreografia original eskainiz.

### Sarrerak salgai

2KN okindegian (San Juan plazan, Sarobe ondoan) eta ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago txarteldegian.

**EDT IRRATIA**  
FM 103.1

2026 / 06 / 14

PLAZA ZERRENOA  
EUSKAL MUSIKA  
BIZIRIK DANTZAN

SAROB EURNIETA

18:45 HELDUEN emanaldia (sarrera libre)

19:30 GAZTEEN emanaldia (sarrera 2€)

Salgai 2KN okindegian (San Juan plazan) eta txarteldegian eguneko bertan



Axeriak, txistulariak, gizarte eta kirol arloko eragileak, kartel lehiaketako saridunak, udal ordezkariak eta langileak... hainbat lagun hurbildu zen jaien aurkezpen-ekitaldira. **AIURRI**

## Gertu dira Sanjuanak

Ekainaren 19an abiatuko dira, ostiralarekin. San Juan eguna bitarte, sei eguneko egitaraua prestatu du Andoaingo Udalak. Azken urteotako joerari eutsiz, eragileek lagunduta egin dute aurkezpena. Egunotan iritsiko da egitaraua, etxe guztietara

### Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko astean aurtengo jaien xehetasunak aurkeztu zituzten, Goikoplazan deituriko agerraldian. Bertan ziren udal ordezkariak, udal teknikariak eta Jai Batzorde kideak.

### EKAINAK 19, OSTIRALA

- 17:00** Joko sorta 4-17 urte bitartekoentzat Goikoplazan.
- 18:30** Kalejira, Goikoplazara: Lebiton Buruhandi eta Erraldoien konpartsa, Olagain Txistularien taldea, Udal Musika Eskolako eskusoinu taldea eta Gora Kaletxiki txaranga.
- 19:00** Pregoia eta txupinazoa, Joxemari Oiartzabalen eskutik.

- 20:30** Bertzesfer musika taldea, Goikoplazan.
- 23:00-03:30** Nafarroa plazan: Mareta, Platero y tú eta Extremoduro taldeen tributo banda.

### EKAINAK 20, LARUNBATA

- 09:30-14:00** Pilota partidak, Arraten: eskuzko San Juan txapelketako finalak (benjamin, alebin, infantil eta kadeteak).
- 10:30-13:00** 16 urtez azpikoen xake txapelketa, Goikoplazan.
- 11:30** Bizikleta festa, Goikoplazan.
- 12:00** Kantu kalejira, Goikoplazatik hasita.
- 12:30** Olagain Txistulari bandaren kontzertua, Goikoplazan.

- 14:30** Bazkari herrikoa.
- 16:00-21:00** Zesta-puntako San Juan txapelketako finalak eta kinielak, Arraten.
- 17:30-20:00** Andoaindarra elkar-tearen danborrada.
- 18:00** Klaap dantza eskola, Goikoplazan.
- 19:00-21:30** Distopia Elektrotxaranga.
- 22:00-23:15** Joseba eta Bakartxo dantza eskolaren ikuski-zuna, Goikoplazan.
- 23:00-03:30** Su Ta Gar eta DJ Makala, Nafarroa plazan.

### EKAINAK 21, IGANDEA

- 10:00** Erraldoi konpartsen topaketa.
- 11:00-13:00** Kontzejupeko txapelketako finalak.

- 11:15** MuGaz taldeko ikasleen kontzertua, Goikoplazan.
- 11:45** 8-11 urte bitarteko bikoteen Kross mistoa.
- 12:00** Bikoteen Kross mistoa. Irteera eta helmuga Arte-ta kalean.
- 15:30** Junior mailako Gipuzkoako Txirindulari Itzulia.
- 16:00-18:00** Mahai-jolas erraldoiak eta uraren festa, Leizaur parkean.
- 17:00-21:30** Taloak, Palestinaren alde, Goikoplazan.
- 18:00** Ezekiel DJ-a Nafarroa plazan.
- 20:30** Puro Relajoren kontzertua, Goikoplazan.
- 22:30** Zezensuzkoa, Goikoplazan.

### EKAINAK 22, ASTELEHENA

- 13:30** Agintarien harrera, 80 urteko andoaindarrei. Ondoren, bazkaria.
- 17:30-19:30** DJ, graffiti/aerografia erakustaldia eta rap lehia, Leizaur parkean.
- 18:00** Haur danborrada.
- 20:00-23:00** Erremontea, Arraten.
- 21:00-00:30** Kontzertuak, Nafarroa plazan: Oihane Ulanga (artista andoaindarra), Devil Records, Guxo, CSK013 eta Amilibia DJak.
- 22:30** Zezensuzkoa, Goikoplazan.

### EKAINAK 23, ASTEARTEA

- 10:00-14:00** Haur parkea, Goikoplazan.

- 17:30-18:30** Txirri, Mirri eta Txirribiton, erretoretxe aurrean.
- 18:00** Joselontxo's Txaranga, Nafarroa plazan.
- 19:00** Alberto Agirre abesbatza eta Udal Musika Eskolako abesbatza, San Martin elizan.
- 20:00** On Pedro Aizpuruaren Salbe Gorena, San Martin elizan.
- 20:15** Alkatea eta Udalbatzaren soka-dantza, Goikoplazan.
- 21:30** Olagain Udal Txistulari Elkartearekin kalejira.
- 22:30** San Juan sua, Goikoplazan. Kanpai-errepika, txalaparta eta suziria.
- 22:45** Agustin de Leitza elkar-tearen danborrada.
- 23:30-00:30** Queen taldearen tributoa, Goikoplazan.
- 23:30-04:00** Mirua, Bengo eta Siwanaba Dja, Nafarroa plazan.

### EKAINAK 24, ASTEAZKENA

- 08:30** Diana, dultzaineroekin.
- 10:30-14:30** Artisautza eta janari azoka, Goikoplazan.
- 11:00** Meza Nagusia, San Martin elizan.
- 12:00** Axeri Dantza, Goikoplazan.
- 17:00-20:00** Artisautza azoka, Goikoplazan.
- 17:00-19:00** Haurrentzat makrame onzi apaingarria, lastargia, txapak, ahate harrapatzea eta globoflexia.
- 18:00-19:30** Hektor Folk, Alaitz Roteta eta Gorka Valdesek kaleak girotuko dituzte.
- 18:00** Herri Kirolak, Goikoplazan. Bikoteko lehia: Iker Vicente eta Ugaitz Mugerza; Julen Alberdi "Txikia IV" eta Arkaitz Etxebeste. Harri jasotzen erakustaldia: Anitze Zumeta, Udane Ostolaza, Estefi Etxebeste. Harri mota ezberdinekin, elkarren aurka: Mikel Lopetegi eta Beñat Telleria.
- 19:30** Bertsolariak Goikoplazan: Aitor Mendiluze, Nerea Ibarzabal, Alaia Martin, Andoni Rekondo, Sebastian Lizaso eta Nerea Elustondo. Gai-jartzaile: Unai Ormaetxea.
- 20:00-22:00** Trikidantz, Nafarroa plazan.
- 23:00** Ragnarok Kull d'Sac taldearen kalejira piroteknikoa, Juanita Alkain plazatik Goikoplazara.
- \*Aiurri.eus gunean, jaiet buruzko atal berezia.

# San Juan jaietako zapia aurkeztu dute

Andoaingo jaietan propio janzteko zapia aurkeztu du Andoaingo Udalak. Herri-eskaera batean dago egitasmoaren oinarria eta, dagoeneko, udalerriko hainbat saltokitan 2,5 euroko prezioan eros daiteke

## Erredakzioa ANDOAIN

Lehiaketa antolatu zuen Udalak eta Andoaingen bizi den Hilario Rodeiro izan da irabazlea. Bertute asko ditu Rodeirok: goi mailako musikaria izateaz gain, diseinurako bertuteak badituela erakutsi du. Irabazi duen lehiaketa da horren erakusgarri. Zapiaren irudiak edo ikonoak zentzu bikoitza du. Alde batera jarrita, San Juan sua iradokitzen du. Beste aldera jarrita, berriz, hontza. Solemnitate handiko ekitaldia izan zen udaletxean ordezkariak duten lau alderdietako bozeramaileek hartu baitzuten hitza.

## Marta Lasa, EHBildu:

"Festetan herritarren parte hartzea ezinbestekoa da benetakoak izan daitezkeen, eta Andoaingen baldintza hori betetzen da. Betetzen da, gainera, jaien prestaketatik bertatik hasita. Orain aurkezten dugun zapia horren isla da".

## Aritz Alkain, PSE-EE:

"Zapia partekatzen dugunaren sinbologia da, gure nortasunarena eta andoaindar sentitzearen harrotasuna. Zapia herri-ekimen batetik sortu da, guztion artean aukeratu eta partekatutako ondare bihurtzeko".



Irastorza (Salkin), Rodeiro diseinuaren irabazlea, Ruiz (EAJ-PNV), Alkain (PSE-EE), Lasa (EHBildu), Barrasa (EHBildu) eta Iparragirre (Podemos) San Juan jaietako zapiaren aurkezpen ekitaldian. AIURRI

## Txitxu Ruiz, EAJ-PNV:

"Zapi berria andoaindar ezberdinak batzeko aitzakia izan daiteke, komunean izan dezakegun ikurra, herriko jaiak komunitatean bizi eta ospatu ahal izateko".

## Jose Mari Iparragirre, Podemos:

"Espero dugu herritar gehienek gustukoak izatea, eta harro eramatea lepoan jai egun hauetan".

Udalak zabalduko oharraren arabera, prozesua parte-hartzailea izan da. Lehenik, herritarrek

beren diseinu-proposamenak aurkeztu zituzten: guztira 22 lan jaso ziren. Ondoren, epaimahaiak guztien artetik hiru proposamen aukeratu zituen. Finalera iritsitako hiru aukerak bozkatzeko aukera zabaldu zen.

## Zapia, herriko dendetan salgai

Salkin merkataritza elkartearen laguntzarekin, zapia herriko 38 saltokitan jarri da salgai, 2,5 euroko prezioan. "Arina eta kolore zurikoa izango da, jai giroan eroso erabiltzeko pentsatua", jasota dago oharrean.



AIURRI

## Txuleta-jana, larunbatean

Azken urteotako joerari eutsiz, auzoetako Jai Batzordeek bazkari herrikoia antolatu dute. La Salle Berrozpe ikastetxeko jolastokian izango da eta, honako hau da menua: txorizoa, entsalada mistoa, txuleta, gazta, irasagarra eta intxaurrak. Sagardoa txotxetik, ardoa eta ura. Txartelak salgai dira Elizondo tabernan eta Ernaitza liburudendan.



SUTAGAR

## Musika eskaintza, jaietan

Askotariko proposamenak aurki daitezke egitarauan. Azpimarragarrienak, jarraian: ostiralean, Marea, Platero y tú eta Extremoduro taldeen tributua; larunbatean, Sutagar; igandean, Puro Relajo; astelehenean, Rap, trap eta DJ saioa, Nafarroa plazan; asteartean, Mirua eta Bengo eta Queen gogoan hartzeko tributua.

## Oiartzabal, pregoilaria

Tronpeta jotzaile, musika ieakasle eta zuzendari, ikerlari eta hainbat kanturen sortzaile da Joxemari Oiartzabal Beloki. Ibilbide oparoa egin du, horrexegatik, andoaindarrek aitortza egingo diote ekainaren 19an, ostiralarekin. Hala, udaletxeko balkoira agertuko da jaiari hasiera emateko. Ondoren, Gora Kaletxiki txarangak Luis Fracaren "Andoain" musika pieza joko du.



AIURRI



andoaINDARRA  
euskaraz



Gozategi. GOZATEGI

# Joselu Anaiak eta Gozategi, gau berean, Kaletxikin

Uztailak 3, ostirala. Gorde eguna, agendan, ez baita nolanahiko gaualdia izango Kaletxikin. Jaiei indartsu ekingo diete, sona handiko bi talderen agerpenarekin. Izan ere, Joselu Anaiak eta Gozategi igoko dira, gau berean, oholtza gainera

## Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo festazaleak San Juan jaiei begira dauden bitartean, auzoetako Jai Batzordeak udako egitaraua osatzen ari dira. Izan ere, udan, ospakizunak bata bestearen atzetik kateatzen dira: Kaletxiki, Karrika, Etxeberrieta, Goiburua, Buruntza eta Sorabilla, hurrenez hurren. Sanjuanen ostean lehenak Kaletxikikoak dira eta, aurtan, uztaileko lehen asteburuan izango dira. Tourra-ekin batera abiatuko dira, hitz gutxitan. Eta, akaso, Tourrak

duen itzal beretsua bereganatu nahian edo, lehen mailako bi euskal talde ariko dira uztailearen 3an: Joselu Anaiak eta Gozategi, hain zuzen. Ziur, Andoaingandik haragoko festazaleei arreta piztuko diela Kaletxikiko jaien lehen gaualdiak. Jende asko espero dutela eta, jatekoa ere ziurtatu nahi dute: Perurena Burger etxeko bi furgoneta hurbilduko dira auzora, festazaleen gosea berdintzeko prest. Eguraldiak lagunduz gero, gogogangarria izango da.

Ez da antolatzaileek burutan duten ideia berritzaile bakarra. Larunbatean, esaterako, haur eta gaztetxoei begira, haur parke berezia antolatu nahi diete: uda izanik, eta eguraldia lagun izanez gero, urak garrantzi handia izango du haur parkean. Gogotik bustiko direla, alegia. Xehetasun gehiago emango ditu Aiurrik, jaiak hurbildu ahala. Gogoan izan aurtan ez direla ekaineko azken asteburuan izango, uztaileko lehenean baizik.

## Hainbat berrikuntza



Jaietako ikuspegi orokorra, artxiboko irudian. AIURRI

**Jaiak, uztailean** San Pedro eguna astelehenarekin da eta egitaraua, ia bere osotasunean, uztailearen 3tik 5era burutuko da. Aurtan, beraz, hainbat egunetako atsedendia izango da San Juan jaien amaieraren eta Kaletxikiko jaien hasieraren artean.



Lebiton konpartsa. AIURRI

**Kandido, Txikitxoak eta buruhandiak** Txistulariek gidatuko dute jaien hasiera, Elizondo paretik Kaletxikira. Kandidok eta Txikitxoek, aurtan, lagun berriak hartuta egingo dute agerpena: Lebiton konpartsa haiekin batera aterako da kalera.



Desafioa, artxiboko irudian. AIURRI

**Igandean, desafioa** Auzo bazkaria, aurtan, Euskal Parrillaren ardurapekoa izango da. Eta, segidan, Kaletxiki eta Sorabilla arteko desafioa. Urtero bezala, jaiak Alaiki taldearen dantzaldiarekin amaituko dira.



Maruja taldea. ANDOAINGO ROCK JAIALDIA



Paco Te Quiero taldea. ANDOAINGO ROCK JAIALDIA

# Larunbat honetan, Rock Jaialdiaren edizio berria

Rock and rolla ez dago bogan eta garaikidea denik ere zalantzan jarriko du hainbatek. Ezin uka ordea, ikusgarria dela rock talde bat zuzenean ikustea. Alde horretatik, proposamen berriak ezagutzeko erakusleihoa aparta da Andoaingoa

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Euskal Herriko eta nazioarteko proposamenak ezagutzeko aukera ematen du rock jaialdiak. Izan dira iragan loriatsua izandakoak, eskarmentu handikoak eta baita hasiberriak ere. Uztarketa horri eusten dio antolaketak nahiz eta, azken urteotan, artista gazteagoen alde apustu handiagoa antzematen den.

Jarraian, aurtengo edizioan zuzenean ariko diren taldeak oholtzara igoko diren ordenaren arabera antolatuta.

**Eguerdian hasita, udalerriko hainbat tokitan**

Eguerdian hasita, rock doinuak zabalduko dira udalerrian. Euskal Herriko hiru taldek osatuko dute eguerdiko Aperitif saioa: Iiingles, Katiuskak, eta Barrrk. Hondarribiko Psilocybe elkartean sortutako musika taldea da **Iiingles**. Seikotea, guztiak emakumezkoak dira. Oihane Bengoetxea partaideak honakoa aurreratu zuen jaialdia iragartzeko prentsaurrekoan: "Hasieran, emakume edota genero disidenteen

presentzia duten taldeen bertsoak jotzen hasi ginen, bizi garen gizarte heteropatriarkal honetan isilarazi eta zapaldutako kolektibo eta ahotsei lekua eman eta oholtzan ikusgarri egiteko asmoz". **Katiuskak** taldea Gasteiztik dator. Hasiberriak dira, emanaldi gutxi egin baitituzte orain arte. Pop eta punk kutsuko doinuak egiten dituzte. Mainer Beristain taldekidea jaialdiaren aurkezpenean izan zen eta honakoa adierazi zuen: "zuzenekoetan daukagun guztia

ematen dugu, eta publikoak, ordainean, berotasuna eta maitasuna transmititu izan digu beti, ezin gara kexatu". **Barrrk** pop rock eta post punk estiloko abestien sortzaile da eta iazko Gazte maketa lehiaketako finalista izan ziren. Laudio taldea da.

**Nafarroa Plazako oholtza gainean sei talde ariko dira**

**Exnovios** Iruñeko taldeak pop, garaje eta psikodelia estiloak uztartzen ditu. Haiek emango diote hasiera oholtza handiko emanaldi-sortari.

**Paco te quiero** Bartzelonatik datoz eta punk nahiz indie musika estiloetan sakondu dute euren proposamena.

**Lézard** frantziarren eskutik iritsiko omen da "post-punk zorrotzaren eztanda". Talking Heads edo The B-52's gogorazten dituzten doinueta trebeak omen dira. Talde handiak dira horiek, rockaren historian.

**Las Petunias** Madrilgo taldeak Rock Jaialdiko kartelaren "alderik lotsagabe eta dibertigarriena" ordezkatzen omen du. Antza, antolatzaileen ahotan, "letra irreberenteak, punk jarrerera eta melodiak uztartuz, estatuko eszenako proposamen berezi eta freskoenetako bat eanbihurtu da".

**Silitia** Bilboko taldeak rock alternatiboa eta elektronika nahasten ditu, rock jaialdiaren musika estilo aukera nabarmen zabalduz.

## Ordutegia

**APERITIF SAIOAK HERRIGUNEAN**

12:00 Iiingles Zumea Plazan.

13:00 Katiuskak Plaza Morean.

14:00 Barrrk Goikoplazan.

16:00 "Norbit Hil Da Hemen" Goikoplazan.

**NAFARROA PLAZAKO OHOLTZA NAGUSIA**

18:00 Exnovios.

19:05 Paco Te Quiero.

20:10 Lezard.

21:45 Las Petunias.

23:00 Silitia.

00:15 Maruja.

Irismen eta ezaguta aldetik, ziuurrenik, talde indartsuena da **Maruja**. Izenak bestelako lurralde bat iradokitzen badu ere, Erresuma Batuko taldea da. Jazz leherkorra, punka, noise-rocka eta spoken word estiloak uztartzen ditu. Finean, rockaren berezko indarra eta musika garaikideak duen frexkotasuna bikain uztartzen dituen taldea da.

Larunbata, beraz, musikazaleen eguna da. Bertako eta kanpotik hurbiltzen diren zaletuentzat gozamen hutsa. Eta dohainik, gainera. Pagotxa ederra, rock-zaleentzat.



Urki dantza taldeko kideak Goikoplazan. AIURRI

# Euskal Jaialdi ederra!

Bizkaiko, Arabako, Nafarroako eta Gipuzkoako folkloreak erakusgarri bilakatu zen Andoaingo Haurren Euskal Jaialdia. Goizean udalerriko hainbat tokitan aritu ziren dantzan eta, bazkalostean, erromeria egin zuten Goikoplazan

## Xabier Lasa ANDOAIN

Urki Dantza Taldeak antolatuta, Euskal Herriko hainbat talderen partaidetzarekin egin zen Andoaingo 36. Euskal Jaialdia. Honatx, 2026an gonbidatutako zerranda: Ordiziako Amets Bide Dantza Taldea, Usansoloko Oinarin Dantza Taldea, Gasteizko Algara Dantza Taldea, Iruñeko Sanduzelai Erraldoi Txikien konpartsa eta Lizarrako Gaitero Gazteak. Haiekin batera, nola ez, Urki Dantza Taldea eta herriko hainbat eragile gehiago: Olagain Txistulari Elkarte, Andoaingo Udal Musika Eskola, akordeolariak eta Punttuka Bertso Eskola.

Leire Nuñezek egin zituen aurkezle lanak. Oholtza gainera Punttuka Bertso Eskolako Enzo Ormazabal, Irai Jauregi eta Adei Zubeldia gazteek bi bertso abestu zituzten. Ondoren, Kale Na-

gusian barrena abiatu ziren euskal jaialdiko partaide guztiak. Zumea plazan, Kaimuturrean, Juanita Alkain plazan eta Plaza Morean emanaldiak egin zituzten. Hamaiketako Zumeatarra, Andoaingarra, Irunberri eta

Peña Santa Krutz elkarteei esker egin zen. Bazkalostean, eguzki-peakan, dantzan aritu ziren dozenaka lagun.

Euskal folklorea hauspotzeko edizio berria egin du Urkik, beste urte batez.

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA



Zumea plazan, Kaimuturrean, Plaza Morean eta Goikoplazan aritu ziren dantzariak.



Lizarrako Gaitero Gazteak. AIURRI



Usansoloko Oinarin Dantza Taldeko kideak, Goikoplazan. AIURRI



Algara Gasteizko Dantza Taldea, Goikoplazan. AIURRI



Sol Band taldeko kideak eta, haiekin batera, Andoaingo elkartasun ekimeneko kideak eta Iker Lauroba musikaria. AIURRI

# Hitzak eta doinuak, Palestinaren alde

Bastero Kulturguneko udaberriko programazioaren amaieran, Palestinako doinuek tarte berezia hartu zuten: Sol Band Gaza taldea aritu zen zuzenean eta, Andoainera zetozela, ikusita, palestinarren aldeko elkartasun-postuak jarri zituzten Plaza Morean

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Gogoan iltzatuta geratzen den emanaldia izan zen aurreko ostiralekoa. Aski ezaguna baita Palestinako herriak pairatzen duen genozidioa eta, bestalde, palestinarrenganako elkartasuna handia da gure herrian.

Sol Band Gaza taldeak okupazioaren aurkako erresistentzia eta Palestinako eguneroko bizitza hizpide dituzten abestiak interpretatu zituen auditorioan, eta komunitate arabiarrean ezagunak diren doinu tradizionalen

eta klasikoen zenbait bertsiore tartekatu zituen. Bereziki hunkigarria izan zen emanaldiaren amaiera. Izan ere, AMMA (Andoaingo Emakume Musulmanen Kultur Elkartea) eta BDZ elkartasun taldeko ordezkariak gonbidatu zituzten oholta gainera. Hala, Uxue Iturriondobeitia eta Salka Jabbari batu zitzaizkien emanaldiaren amaieran. Iturriondobeitiak Israelen aurkako boikot aktiboa egiteko mezua zabaldu zien entzuleei, eta Jabbarik, Nizar Qabbani

poeta arabiarren poesia errezitatu zuen. Ondoren, denok elkarrekin, "Txoria txori" abestu zuten.

Rahaf Shamaly (ahotsa), Hamada Nasrallah (ahotsa eta gitarra), Abdelkader "Abood" Abugassim (teklatuak) eta Said Fadlelek (bateria) osatutako laukoteari Iker Lauroba (baxua) batu zitzaizen. Emanaldiaz haragoko arratsaldea izan zen aurreko ostiralekoa. Izan ere, AMMAk eta BDZk elkartasun postu bana jarri zuten Plaza Morean.

## Palestinarekin elkartasuna



Arratsaldean hasita, postuak jarri zituzten Plaza Morean. AIURRI



## ALTXORRAREN BILA

11 - 17 URTE BITARTEKOEI ZUZENDUA

Andoaingo dendak ezagutu ditzagun

Ekainaren 15etik 21era **Aurkitu txirrinda**

Informazioa:  
Salkineko bulegoan edo  
623 544 244 (10:00-14:00)  
www.salkin.eus



Lide Ruiz Telleria ANDOAIN

**Boccian Euskadiko txapelkun ordea izateaz gain, Estatu mailako 3. postua eskuratu duzu. Pozik zaude lortutako emaitzekin?**

**Markel Uzquiano:** Bai. Maila oso altua zen, maila nahikoa edukiko ez nuela uste nuen. Bestalde, nire entrenatzaileei eta kideei esker denboraldi ona egin dut, aurreko denboraldiarekin alderatuta. Iazkoa ere, denboraldi ona izan zen, Europan jokatzeko aukera izan bainuen. Oro har, oso pozik nago lortutako emaitzekin.

**Hain gaztea izanik oso emaitza onak lortu dituzu. Hori ez ohikoa dirudi.**

**M.U.:** Bai, pixkanaka-pixkanaka hobetzen ari naiz. Mailari dagokionez, entrenatzaileek azpimarratzen didate adinak ez duela garrantzirik. Egia da, txapelketetan jende helduaren aurka jokatu dudala, baina ez da arazo bat izan, nik nire bidea egin dut. Aurtengo denboraldian emaitzak izugarriak izan dira, hurrengoan agian ez ditut horrelako emaitzarik lortuko. Hala izango ez balitz, ez litzateke ezer gertatuko.

**Nolako esperientzia izan zen Europa mailan jokatzeko?**

**M.U.:** Iaz, gazteen Espainiako txapelketaren ostean aritu nintzen. Estatu mailan hiru txapelketa nagusi daude; gazteena, liga bakoitzeko txapelkunena, eta, Espainiako txapelketa nagusia. Kopa nire lehen txapelketa absolutua izan zen, eta ondo joan zen. Pozik nago Estatu mailan eman dudana mailarekin ere, presiorik gabe jokatu nuen. Zortea eta egin dudana lana uztartuta, denboraldia oso modu onean amaitu dut. Egia da, lehenengo postua eskuratzeko gustatuko litzaidakeela, eta Espainiako txapelkun izan, baina oso pozik nago, hala ere. Sorpresa handia izan da niretzat.

**Olinpiada paralinpikoetan jokatzeko zure ametsetako bat da?**

**M.U.:** Bai. Oso urruti ikusten dudana ametsa da, gauza asko gertatu behar dira bertara iristeko. Aukera izango banu oso pozik arituko nintzateke, baina, pausoz pauso entrenatzen jarraitu nahi dut, eta aurrerago ikusiko da ea zer gertatzen den.

**Gaur egun, zein klubetan entrenatzen duzu? Zenbat partaide ditu?**

**M.U.:** Lasarte-Oriako Ostadar taldean entrenatzen dut.

**Amaia Lopez de Guereñu:** Bai, Ostadarrek, ohiko kirolez gain,

# “Jarrera ona eta borondatearekin gauza asko lor daitezke”

**MARKEL UZQUIANO ETA AMAIA LOPEZ DE GUEREÑU BOCCIA JOKALARIA**

Markelek jaio zenetik garatu zuen garun paralisia. Egun, Boccia kirolean murgiduta dabil. Markelek eta bere amak kirola eta desgaitasunaren inguruko bizipenak azaldu dituzte



Markel Uzquiano eta Amaia Lopez de Guereñu Goikoplazan. AIURRI

kirol inklusibo eta egokituak egiteko aukera ere eskaintzen du.

**M.U.:** Boccian, sei partaide gara, eta entrenatzaileak Javier Camacho, Esteban Garaialde eta David Vicente dira. Guztira sei garen arren, bik ezin dute txapelketetan parte hartu, Boccian parte hartzeko desgaitasun maila zehatz bat izan behar duzula. Hala ere, entrenatzera etortzen dira, denon artean oso ondo pasatzen dugulako, sozializatzeko momentua izaten da.

**A.L.:** Gainera, Bocciaz gain, Slaloma ere egiten dute. Kirol horren helburua, gurpildun aulkiarekin oztopoak saihestea da. Duela gutxi Tarragonara joan ziren, Espainiako Txapelketan parte hartzeko. Markel ez zen joan, ez baitzuen eskatzen zuten denbora egin. Oso gustura egoten dira, elkarrekin egoteko aukera oso ona baita. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiogu Ostadar taldeari.

**Nondik datorkizu Boccia kirolarekiko zaletasuna? Noiz hasi zinen jokatzeko?**

**M.U.:** 2021ean hasi nintzen, baina psikologikoki momentu txar bat pasatzen ari nintzenez, uztea erabaki nuen. Hala ere, 2023an berrartu nuen. Denboraldi horretan, Euskal Selektzioarekin jokatzeko deitu ninduen, eta niretzat poz handia izan zen. Kasu horretan, seigarrena izan nintzen txapelketan,

baina, Espainiako Txapelketa irabazi nuen, beraz oso pozik nengoen.

**Kirol ezaguna da Euskal Herrian?**

**M.U.:** Ez, inolaz ere. Ez dauka zerikusirik, futbola edo saskibaloiarekin. Bestalde, El Langui aktoreak ikusgarritasuna eman dio kirolari. Berak ere, garunparalisia du, eta aurrerapauso handiak eman ditu kirola ezagunagoa izan dadin. Euskal Herriaren kasuan, publiko gisa soilik familiak, entrenatzaileak eta jokalarik ohiak daude. Espainian ere, egoera oso antzekoa da.

**A.L.:** Nire ustez, ikastetxeek ikusgarritasuna eman beharko liokete. Markelek, esate baterako, hitzaldi batzuk eman ditu horretaz hitz egiteko.

**M.U.:** Bai, aurrean hiru hitzaldi eman ditut, kirolaren xehetasunak azaltzeko, eta era berean, materiala eraman nuen ikasleek materialarekin jokatzeko.

**Zein ezaugarri edo teknika behar dira Boccian airtzeko?**

**M.U.:** Lehen baldintza, garunparalisia edo garuneko kalte hartua izatea da. Horrez gain, azterketa mediku bat pasa behar da, nazio mailakoa nahiz nazioartekoa. Proba horien bidez, kategoria zehazten da, norberaren zailtasunaren arabera. Nire kasuan, BC1 mailan jokatzeko da.

**Hurrengo urteetan jarraitzeko asmoa duzu?**

**M.U.:** Bai. Boccia urte askotan jokatzeko aukera ematen du. Adibidez, 30 urte jokatzeko darमतatzaten jokalariek daude, eta egun, 60 urte dituzte. Nik ere jarraitzeko asmoa dut, fisikoki jarraitzeko aukera ez dudana arte. Izan ere, ez dirudien arren, Boccia oso kirol fisikoa da.

**A.L.:** Bai, garunparalisia dela eta, pilota bota nahi duenean gorputzeko gihar asko aktibatzen zaizkio, beraz, autokontrola oso garrantzitsua da. Zentzu horretan, autokontrolari buruz asko ikasi du. Fisikoki kirol gogorra da, eta txapelketa bat jokatu ondoren leher eginda egoten da.

**M.U.:** Bai, indarra ere Aginaga ECCMAX kirol gunean lantzen ari naiz. Oso pozik nago bertan, bitzita aldatu didatela esango nuke. Garunparalisan egokitzen den zentro bakarrenetako bat da, eta oso eskertuta nago.

**ECCMAX kirolgunean oso gustura zaudela azpimarratu duzu. Gehiago sakondu dezakezu?**

**A.L.:** Batez ere, indarra lantzen dute. Bertan, egoera desberdinetako pertsonak elkartzen dira, eta hori da politena. Goi mailako kirolariak, Hyrox eta Deka probatan aritzen direnak, mendian korrika aritzen direnak, eta baita Markelen egoeran daudenak ere. Ni ere, hara joaten naiz luzaketak egitera, Markelek indarra lantzen duen bitartean. Makinak denon beharretara egokituta daude, eta edonor joan daiteke. Makinak bertako jabeak diseinatu zituen, Javier Nogueirak.

**M.U.:** Berari esker, zutik jartzea lortu nuen behin. Indarraren lanketan eta nire gorputzarekiko kontrolan asko hobetu dut.

**A.L.:** Bai, azkenean, garun-paralisia ez da joango, baina lanaren bitartez, asko hobetu daiteke. Esate baterako, Markelek bi eskuak erabiltzen ditu, eskui-na zein ezkerra, eta hori berak egin duen lanketari esker izan da. Izan ere, ECCMAX-en egiten duen saioaz gain, egunero etxean indarra lantzen jarraitzen duela. Oporretara ere, pisuak eta gomak eraman ditugu. Hobeto sentitzen dela nabarmentzen du. **Beraz, zure jarrerari esker hobetu duzula esango zenuke?**

**A.L.:** Nik baietz esango nuke. Oso burugogorra da, eta horrek asko lagundu dio, bere errutina oso ondo antolatzen du. Indarra asko lantzen du bai Aginagan, bai etxean. Jarrera oso ona du. Niri erakutsi dit, bizitzan jarrera ona eta borondatea baduzu gauza asko lor ditzakezula.

**Zentzu horretan, eredu dela esango zenuke?**

**A.L.:** Bai, zalantzarik gabe. Markelek gauza asko irakasten dizkit. Txikitatik fisioterapeuta batekin aritu da, eta berak hasieratik esan zion “ez daukate-



Euskadiko selekzioarekin Espainiako txapelketa gazte mailan. UZQUIANO

nari ahotsa ematera etorri zara”, izan ere, bere egoeran dauden askok ezin dute ahotsa altxatu eta haien errealitatea adierazi. Jarrerari dagokionez, Markel txikitatik oso heldua izan da, agian, ez duelako beste aukerarik izan. Nahiz eta zailtasunak izan, beti aurrera jarriatu du. Ikastea adibidez, kirola egitea baino gutxiago gustatzen zaio, baina hala ere, egiten du. Inoiz ez da etsi. Borrokatzea tokatuko zaio, jakinda gu beti bere alboan egongo garela.

**La Salle-Berrozpeko ikaslea zara. Hurrengo urteetan ikastetxean jarraitzeko asmoa duzu?**

**M.U.:** Nire asmoa, beste nonbaiten lanean hastea da, ikastea ez baitzait asko gustatzen. Hurrengo urtean 4. DBH amaitzean beste toki batean lanean hasi nahi nuke. Orain, egon daitezkeen aukeren inguruan informatzen hasi gara.

**A.L.:** Zaila da, oso aukera gutxi baitaude. Esate baterako, Gu-reakera informatzera joan ginen, eta ezetz esan ziguten. Izan ere, bertan guztiz autonomia izan behar duzu, eta Markelek adibidez, laguntza behar dut komunerara joateko. Eman diguten beste aukera bat telelana egitea da, baina Markel oso pertsona soziala da, jendearekin egotea gustatzen zaio.

Zailtasunak izan arren, komunikaziorako gaitasun handia du. Oso ondo moldatzen da hitzaldiak ematen, eta era berean, oso baliagarria izan daiteke, beste pertsona batzuei laguntzeko. Markelek txikitatik laguntzaile bat izan du, eta Ikastetxean Bociaren inguruko hitzaldia eman zuenean, argi azpimarratu zuen “bueltan emango banu ez nuke esango garun-paralisia duenik”. Adierazi nahi duena oso ondo komunikatzen du. Hortik jo behar duela uste dut.

Konbentzitututa gaude bere beharretara egokituta dagoen zerbait egon behar duela, zentzu horretan, hurrengo urtean borrokatzea tokatuko zaigu.

**Ama gisa, kirolak bere eboluzioan positiboki eragin duela esango zenuke?**

**A.L.:** Bai, zalantzarik gabe. Oso gustura sentitzen den kirol bat egiten ari da, bat gehiago sentitzen dena. Eguneroko bizitzan ez dira bat gehiago, nahiz eta jendeak baietz esan.

**M.U.:** Sare sozialetan, beste kirolari batzuen ibilbidea jarraitzeak ere asko laguntzen dit. Valentí Sanjuan eta Alex Roca dira gehien jarraitzen ditudanak. Alex Roca garun-paralisia duen korrikalaria da, eta haren kirol ibilbidearen berri izateak indarra ematen dit, nik ere motibazioa mantentzeko.



FEDERAZIOA

## Gabirondo, txapeldun

Sei gizonetako aritu ziren norgehiagoka sega-sail eran, Hernaniko Jauregi bailarako Ixtubegiko belardian, igande eguerdian. Urnietarra izan zen onena bizkortasuna eta txukuntasuna kontuan hartzen dituen sega-sail eran. 1.000 metro koadroko saila moztu behar izan zuten. Sailkapena: Julen Gabirondo (33:11), Mikel Lizartza (36:19) eta Jokin Etxeberria (37:14).



UDALA

## Andoaingo kirol eskaintza

Zabalik dago 26/27 eskaintza. Haurrak, igeriketa; Gazteak (12-16 urte), fitness ordu gaztea, kross training gaztea eta spinning gaztea; Helduak (16+), Igeriketa, aerobik, aquagym, Balance, Fitness, Gap, Hipopresiboak, k-Stretch, Kross training, Pilates, Pump, Soinketa, Spining, Yoga eta Zumba fit; Adinekoak (65+): Dantza, Pilates eta Soinketa.

# ERREMONTARI

## PLAY OFF

EKAINAK 15, ASTELEHENA  
18:00etan / GALARRETA JAI ALAI

IKUSKIZUN PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA • 3. SETA, 8 TANTORA

### AIESTARAN VII · BARRENETXEA IV ALDABE · AZPIROZ

ERREMONTARI · PLAY OFF 2 SET, 15 TANTORA • 3. SETA, 8 TANTORA

### GOIKOETXEA V · JUANENEA VS ANSA II · ZUBIRI

SARRERAK



# AGENDA

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## MUSIKA

### ANDOAIN Rock Jaialdia

Barrk, Iiangles, Katiuskak. Arratsaldean, Nafarroa plazan, Maruja, Exnovios, Lezard, Paco Te Quiero, Las Petunias eta Silitia. **Herrigunea, Nafarroa plaza. Ekainak 13, larunbata.**

## AXERI DANTZA

### ANDOAIN Entseguak

Axeri Dantza prestatzeko entseguak. **19:00-20:00, Ondarreta. Ekainak 16, 18 eta 22.**

## DEIALDIA

### URNIETA Alkate txikiak

2017 urtean jaiotako haurren artean. Informazioa: Urnieta.eus. **Azken eguna: Ekainak 15.**

## ERAKUSKETA

### ANDOAIN Lebiton

"Lebiton eta gure pertsonaiak". **Bastero. Ohiko ordutegia. Azken eguna: ekainak 30.**



Egape Dantza Taldea, berriki, Gazte Festetan. AIURRI

### URNIETA "EDT irratia" dantza-ikuskizuna

"Euskal musika bizirik dantzan, kantuen play-listean". **18:45, helduen emanaldia. 19:30, gazteen emanaldia. Ekainak 14, igandea. Sarobe antzokia.**

## EUSKARA

### ANDOAIN Euskara plana

Plan berria diseinatzeko bi saio ireki antolatu ditu Udalak, ekainaren 2an eta 17an. **17:30, Urigain. Ekainak 17, asteazkena.**

## ATE IREKIAK

### URNIETA Eskubaloia

2014an jaiotakoei proba egiteko deia luzatu du UKE klubeko eskubaloia atalak. **18:00-19:30. Kiroldegia. Ekainak 17, asteazkena.**

## ZINEMA



### ANDOAIN

#### BASTERO

**Pioneras: Solo querían jugar**  
Larunbata, 13. 19:30.  
Igandea, 14. 19:30.  
Astelehena, 15. 17:00, 19:30.

## SINOPSISIA

### Pioneras: Solo querían jugar

**Zuzendaria:** Marta Díaz de Lope Díaz. **Aktoreak:** Sofia de Iznajar, Bruna Lucadamo, Aixa Villagran, Daniel Ibañez... **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 106 minutu.



## Bidegileei, gorazarre

70eko hamarkadaren hasieran, Espainian, Frankismoa oraindik gizartean sendo errotuta zegoela, neska gazte talde batek futboleko jokatzeko erabaki zuten. Bidean ustekabeko aliatu bat aurkituko dute: kirol-sustatzaile ausart bezain ameslaria. Elkarrekin, eta iragarpen guztien aurka, aurre egingo diote sistemari eta Espainiako emakumezkoen futbolaren historia betiko aldatuko duen borrokaren lehen harria jarriko dute.



"Ikertzeak aldatzen zaitu. Partekatzeak etorkizuna aldatzen du"

Maren Martínez de Rituerto,  
Kirol-hezitzaile fisikoa

[www.ehu.eus/ikasi](http://www.ehu.eus/ikasi)

**ETORKIZUNEAN  
LANEAN**  
Ibilbidea zure esku